

Giza eskubideak, indarkeria politikoa eta gobernu berria: bi gako

Jon-Mirena Landa

EHUko Giza Eskubideen eta Botere Publikoen Unesco Katedraren zuzendaria

Asko hitz egin da azken egunotan oroimenaren gaiak eta Gogora institutuari buruz, Eusko Jaurlaritza berriaren horien kudeatzeko ardura PSEren eskuetara pasatuko dela jakin denean. Baina hori —oroimena, Gogora— Giza Eskubideen politika publikoen zati bat besterik ez da. Giza eskubideak indarkeria politikoen harira bere osotasunean, ordea, izan dira orain arte gure herrian eztabaidaren erdigunean egondakoak, biktimen politikak jorratzen zirenean bereziki. Giza eskubideen politikak oraina dute: ez bakarrik iragana. Oraindik egia-ariketak gabe dauden urraketa hitz egiten digute politika horiek, esaterako: aitortu gabeko torturaz eta poliziek egindako bestelako delitu larriez ari garenean; ETak egindako delituen ondorioaz (zigor, preso, biktima, adierazpen askatasunaren mugaz...) ari garenean; eta abar luze xamarra. Gaiok *egia-justizia-kalte konpontzea* (eta ez errepikatzeko bermeak) lelopean gobernatu behar dira: eta hor pendiente dagoen atalbururik garrantzitsuenetakoa estatuak berak egindako giza eskubideen urraketa, krimenena, da, gehien-gehienetan egirik, justiziarik, eta kalte konponketarik gabe daudelako.

ETAren kasuan, jakina denez, salbuespenik salbuespen, kasuak ikertu eta kondenatu dira, egileak identifikaturik kartzelan egon/egoten direlarik. Horri gero kontakizuna datorkio. Baina tortura, ez-legezko atxiloketa,

judizioz kanpoko exekuzio, gobernuen inplikazio, auzi-medikuen edota fiskal eta epaileen beste alde batera begiratzeko hori... hori guztia, salbuespenik salbuespen, argitu gabe dago; justiziarik gabe dago. Horri dagokionez «orririk» oraindik ez dugu; are gutxiago irakurritza; nolatan ba horren memoriaz hitz egingo? Badirudi, beraz, batzuei bakarrik interesatzen zaiela «Memoria» eta ez horrenbeste aurretik dauden giza eskubideen urraketen argiketa eta erantzukizun-ariketa halabarrezkoa. Batzuetan ematen du ez dagoela lege bat, 12/2016 Euskal Legea, hain zuzen ere, giza eskubideen urraketa larri horietaz guztietaz arduratzen dena. Eta hori ere oraingo gobernu berriaren PSEren eskuetara pasatu egin da, horren menpe egongo baita, aipatu legea betetzeko behar diren bitarteko eta laguntza ematea eragingarria izan dadin.

Eta nola dago egia kontu hori lege-gintzaldi berriaren atarian? Nola izan da pasa den legegintzaldia horri dagokionez? Askotan jada lege bat dugula esaten da (12/2016 Legea, polizia-indarkeriarena) eta lege hori martxan dagoela, beraz, arazoa konponduta omen legoke. Baina azken lau urteotan lege horrek behar bezalako fruituak emateko ahalegin nahikorik ez da egin. Ez dut honekin kritika pertsonal bat egin nahi inoren aurka. Diagnostiko objektibo bat da: pasa den Eusko Jaurlaritzak, EAJren aldetik, ez du inolaz ere lortu, lege horren lana bermatzea. Horren emaitza da biktima horiekiko lana ikaragarri astiro doala, apenas ez dela gizarteratzen, babes politikoa zein material urria izan delarik gaiak duen garrantzi objektiboa zein den kontuan harturik. Horretaz arduratzen den ba-

lorazio-batzordea itota dago. Biktimak zain, asko desesperaturik eta arrazoi osoz (horra hor, duela gutxi prentsan argitaratutako Rosa Zarraren sendi eta lagunaren kexu publiko arrazoitu bezain lazgarria!). Eta hau guztia ez da nire iritzia: legearen balorazio-batzordea bera urtez urte esaten ari den informazioa besterik ez da.

Horren aurrean Giza Eskubideen politikak, Gogora institutua barne, PSEren eskuetara doaz. Aukera paregabea du orain alderdi horrek politika horiek serio hartzen dituela ekintzez baieztatzen. Eta hitzen gaintetik, gako bikoitza izango da, nire aburuz.

Lehenengo gako. Estatuak sortu dituen biktimen egia plazara azalarazten ez den bitartean, bizikidetzak eta horren zoru etikoak ez du oinarri sendorik izango. Biktimen asimetria,

Estatuak sortu dituen biktimen egia plazara azalarazten ez den bitartean, bizikidetzak eta horren zoru etikoak ez du oinarri sendorik izango

besteak beste, kalkulu estrategikoa izan da, kontakizun jakin batzuen alde. Hori ez da gizalegezkoa ezta sanoa gizartearentzat. Estatuak sortu dituen biktimak gure herrietan bizi dira, ETAko biktimen kasuetan gertatzen den bezala. Eta horien zauriak behar bezala trataturik ez dauden bitartean, sufrimendu pertsonala zein soziala hor izango da. Eta horrek ahultzen du, neurri handi

batean ere, estatu demokratikoaren oraina eta etorkizuna. Beraz, biktima horiek behar bezala tratatu behar dira. Lehenengo politikoa merezi dute, gaiak botorik ematen duen gorabehera. Eta horretarako 12/2016ko Legeaz arduratzen den balorazio-batzordea bai bitarteko bai laguntza politikoz hornitu beharra dago. Lege horrekin lotuta dagoen lana indar eta duintasun osoz aurrera ateratzen den neurrian esan ahal izango da PSEren ardura fundamentuz ari dela betetzen. Horra hor lehenengo erronka.

Bigarren gako. Memoria inklusiboa. Memoria, estatu demokratikoetan, ezin da inposatu. Gobernuak bultzatzen ez duen bitartean, bizikidetzak eta horren zoru etikoak ez du oinarri sendorik izango. Biktimen asimetria, besteak beste, kalkulu estrategikoa izan da, kontakizun jakin batzuen alde. Hori ez da gizalegezkoa ezta sanoa gizartearentzat. Estatuak sortu dituen biktimak gure herrietan bizi dira, ETAko biktimen kasuetan gertatzen den bezala. Eta horien zauriak behar bezala trataturik ez dauden bitartean, sufrimendu pertsonala zein soziala hor izango da. Eta horrek ahultzen du, neurri handi batean ere, estatu demokratikoaren oraina eta etorkizuna. Beraz, biktima horiek behar bezala tratatu behar dira. Lehenengo politikoa merezi dute, gaiak botorik ematen duen gorabehera. Eta horretarako 12/2016ko Legeaz arduratzen den balorazio-batzordea bai bitarteko bai laguntza politikoz hornitu beharra dago. Lege horrekin lotuta dagoen lana indar eta duintasun osoz aurrera ateratzen den neurrian esan ahal izango da PSEren ardura fundamentuz ari dela betetzen. Horra hor lehenengo erronka.

Bi gako nagusi horiek, beraz, PSEk aurretik dituenak. Aukera historikoa, erraldoia, arantzaz bete zaila izango da. Baina ausardiak eta behar bezala kudeatuz gero biktimek, gizar-teak eta borondate oneko edozeinek eskertuko dutena. ●

Zuzendariari



BERRIAK irakurleen eskutitzak plazaratzen ditu. Ez dituzte 1.400 karaktere baino gehiago izan behar, tartekak barne, eta BERRIAK mozteko eskubidea du.

● Helbide honetara bidali behar dira, izen-abizenak eta herria adierazita: **Berria Martin Ugalde kultur parkea, 20140 Andoain.**

● Eskutitzak Internet bidez bidaltzeko: **iritzia@berria.eus**

Gu

Euskal Herriaren izendapena, erakunde bereizi gisa gaur «nazio» gisa esango genukeen eran, errealitate bat zen XVI. mendean Joanes Leizarraga idazlearen luman. Baita Joana Albretetako Nafarroako erreginarekin ahotan ere. Bernart Etxepare behe-nafarraren *Linguae Vasconum Primitiae* euskarazko lehen liburuan non euskara «euskaldun guztien berezko hizkuntza» gisa aipatzen zuen. Errealitate normala zen XVII. mendean Lapurdiko Axularren, *Gero* liburuaren egilean non Eus-

kal Herria zazpi lurraldek osatzen dutela zioen. Euskal nazioa Manuel Larramendiren gogoetetan zegoen, Sabino Arana jaio baino mende bat lehenago hil zena, bere *Imposible Vencido* lanean. Ibilbide luzea beraz. Izan nahi izateko eta izaten jarraitzeko borondatea nabarmen. Nire nahien leihora hurbildu nahi dut eta nire euskal luraren argazkia ikusi, bakean eta normalizazioan garraile, non naturaltasunez onartzen den euskal abertzaletasunak euskal gizartearen maila zabalaren borondateari erantzuten diola. Baita herritar batzuk espainiar sentitzen

direla ere. Euskal Herriari eta Espainia Konstituzionalari buruzko pertzepzio, sentimendu eta borondate juridiko-politiko desberdinak daudela ulertzeko arazorik ez dagoela ikustea gustatzen zait. Euskal abertzaletasunari sarritan aplikatu izan zaion tratamendu sargaritsuaren desagerpena ikusi nahi dut; baita izandako indarkeria politikorekin bere balizko anbiguotasunarekin nahastea ere. Abertzaletasuna eta atzerakoikeria parekatzearen maltzurkeria amaitzearekin amesten dut. Sinesten dut bizikidetzan eta zubigintzan. Ahalegin historiko eta

indartsua egin beharra dago indarkeria guztien biktima guztiak aitortzeko eta elkartasuna adierazteko. Hurrengo belaunaldiei zor diegu, baita Lauaxetaren lekukoa utzi ziguten gure aurrekoei ere, «dena eman behar zaio maite den askatasunari», eta hark zioenez «itxaropenari leiho bat ireki omen diote». Urrutitik gatoz, izaten jarraitu nahi dugu. Erabaki, adostu eta negoziatzeko eskubidea eta legitimitate demokratikoa dugulako auzotasun atseginean sinesten dut.

Jose Manuel Bujanda Arizmendi
Irakasle erretiratu